Cristina Carrasco • Ekonomista

«Sistema kapitalistak etxeetako lanaren beharra du iraun ahal izateko»

Krisiak munduko gizartearen zati handi bat aurrez ezagutu gabeko pobreziara eramango duela dio. Ekonomia Kritikoa alternatibak proposatu nahi ditu, bide tradizionaletara jo gabe, aurrera egiteko moduak aurkitzeko.

Jon Bernat Zubiri

Ekonomista eta irakaslea da Cristina Carrasco Bengoa bartzelonarra. Ekonomia Kritikoa sarean parte hartzen du, eta ekonomia feminismoari buruzko ikerketan erreferente nagusietako bat da. Emakumeek zaintzari buruz duten esperientzia errekuperatzeko beharra aldarrikatzen du.

G Ekonomia Kritikoa sareko kidea zara. Zer da sare hori eta nolatan sortu zen?

E Ekonomia kritikoari buruzko aurreneko jardunaldiak Madrilen egin ziren, 1998an, Unibertsitate Konplutentseko Ekonomia Fakultatean. Ordutik bi urtean behin egin dira, hainbat hiriburutan, txandakatuz. Bartzelonako Lan eta Dokumentazio Zentroan elkartzen ziren ekonomisten ekimenez hasi zen guztia. Hainbat talde biltzen ziren zentro horretan; tartean, ekonomista heterodoxoak. Unibertsitate Konplutentseko ekonomista talde batek, Euskal Herriko Unibertsitateko beste batek, beste hainbat taldetako kideek eta sindikatuek ere erakutsi zuten interesa. Jardunaldien jarraipenak aukera eman du Ekonomia Kritikoa sarea sortzeko eta aldizkari elektronikoa mantentzeko (*www.revistaeconomiacritica.org*).

G Zein dira sarearen helburu nagusiak?

E Ekonomia kritikoak eztabaidarako gune bat izatea da jardunaldien nahiz aldizkariaren helburua. Eta ekonomia kritikotzat ulertzen dugu ez partekatzea edo eztabaidan jartzea akademian nagusitzen den ekonomia ofizialagoaren planteamenduak nahiz indarrean jartzen ari diren politika ekonomikoak.

G Eskola bateko baino gehiagoko ekonomistak zaudete: pentsaera marxistakoak, ekologistak, poskeynesiarrak, feministak, instituzionalistak... Horien guztiak elkarren artean zertan datoz bat?

E Ikuspegi ezberdineko jendea bat etortzea ez da erraza, eta ez planteamendu ezberdinen arteko akordio faltagatik. Eskola bakoitzak indar berezia jartzen du bere aztergaian, eta horren atzean, noski, ideologia politiko bat dago. Orokorrean, uste dut eskola bakoitzak bere gaiari ematen diola lehentasuna, baina multzoak duen garrantzia ahaztu gabe. Eta jardunaldiak nahiz aldizkaria laguntzen ari dira alde horretatik, joerak eta pertsonak gerturatzen ari garelako helburu batekin: marko analitiko komunak eraikitzen saiatu nahi dugu, horien bidez eragin kolektiboa izan eta politika ekonomiko berriak proposatzeko. Hain zuzen, azken bi jardunaldien ondoren, manifestu bat publikatu dugu.

> *«Marko analitiko komunak eraiki nahi ditugu, politika ekonomiko berriak proposatzeko»*

> *«Sistema kapitalista ez da gai behar duen lan indar guztia eraikitzeko»*

G Hainbeste dimentsiotako krisi honek —finantza krisia, zorrarena, gizartearena— nolako kostuak eragingo dituela uste duzue?

E Itxura guztien arabera, erabat ondorio atzerakoiak utziko ditu krisiak, eta munduko gizartearen zati handi bat aurrez ezagutu gabeko pobreziara eramango du. Gainera, egoera kaotiko honetaz baliatzen ari dira ideologiaren atzeraldi orokor bat bultzatzeko. Horregatik, saiatu behar dugu aurrerabiderako balizko aukerak topatzen, bide tradizionaletara jo gabe.

G Ekonomia Kritikoa sareko kidea ez ezik, ekonomia feministaren ikertzailea ere bazara. Zertan datza ekonomia pentsamenduaren eskola hori? Nola antolatzen duzue ekonomia androzentrikoarekiko kritika?

E Hiru ideia nabarmenduko nituzke. Alde batetik, ekonomia merkatuaren mugetatik harago doala uste dugu, hau da, ordaindu gabeko etxeko lanak ere ekonomiaren parte direla diogu. Analisi horri jarraituz, ikus daiteke sistema kapitalista ez dela gai sistema gisa funtzionatzeko behar duen lan indar guztia eraikitzeko, etxetik eraikitzen dela zati handi bat. Soldatek parte hartzen dute prozesu horretan, baina ez dira aski; ordaindu gabeko lan handia behar da. Hau da, sistema kapitalistak etxeetako lanaren beharra du iraun ahal izateko.

G Zein da bigarren ideia?

E Etxeko lanaren azterketa. Ekonomia feministak zaintza lana atzeman du, edo, sinpleki, bizitzaren zaintza. Zaintza etxeko lanetik haratago doa; alderdi subjektiboak, emozionalak, afektiboak eta beste ditu berekin. Etxeetan jasotzen ditugu aurreneko harreman afektiboak, balioak ikasten ditugu, mintzaira, nortasun sexuala eraikitzen dugu... Baina ez da bizitzako lehen urteetako kontua bakarrik. Gero ere egunero joaten gara etxera indarrak hartzera, atseden hartzera, eta han finkatzen ditugu sare afektibo eta emozionalak. Zahartzaroan ere etxeak dira oraindik zaintzaren arduradun nagusiak. Pertsonok elkarren menpekoak gara, eta gure menpekotasunei erantzunak emango dizkien zaintza behar dugu. Gorputz ahuletan bizi garen isla da hori.

G Horregatik egiten duzue borroka kapitalaren pilaketaren ordez ekonomiaren erdigunean bizitzaren bideragarritasuna jartzeko?

E Hirugarren ideia bigarrenari lotuta dator. Ekonomia feministak, haren garrantziaz jabetuta, ekonomiaren erdigunean kokatzen du zaintza. Beste mugimendu sozial batzuek ere planteatzen dute bizitza kapitalaren gainetik dagoela. Ezberdintasun bat dago, ordea: ongi bizitze horretan, etxeetan egindako zaintza ez dute elementurik garrantzitsuena balitz bezala ikusten. Beste alderdi batzuk hartzen dituzte kontuan, Amartya Senek gaitasunen garapenean sostengatutakoak, baina ez dituzte sartzen gaur egun etapa guztietan emakumeek egiten dituzten zaintza lanak. Ideologia patriarkalak markatzen du ezberdintasun hori. Pertsona asko, gizonak bereziki, ez dira gai ikusteko zein garrantzitsua den emakumeek bizitzaren zaintzari buruz duten esperientzia berreskuratzea.

BERRIA